





Aizpeako labeak / Oamendi zirkularra


P **P. Aparkalekua.** Zeraingo Aizpeako meategietako adieraztegiaren aurrean dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa.


 **1. Hasiera puntua.** Aparkalekuan bertan emango diogu hasiera ibilbideari, PR-Gi 3008 arrasto zuri-horiei jarraituz. Oamendia 7,5 kilometrora dagoela adierazten du seinaleak.


 **2. Mea trenbidea.** Lehen aldapatxo igota, mea garraiatzeko trenbidearekin topo egingo dugu. Hura eskubitara utziz, aurrera jarraitu beharra dago arrasto zuri-horiei segiz.


 **3. Ingelesen trenbideko bidegurutzea.** Metro gutxian iritsiko gara bidegurutze honetara. Eskubira eta gora doan bideari jarraitu behar zaio.


 **4. Burdinaren mendiko seinaleak (I).** Burdinaren mendian barneratuta, seinale sorta bat dagoen bidegurutzerara iristen da. Kontuz ibili behar da, eta 'Perretxikoak. Herrestabidea' dioen geziari jarraitu behar zaio eskubitara.


 **5. Burdinaren mendiko seinaleak (II).** Berriz ere seinale sorta bat azalduko da bidean. Eskubitara jo beharra dago berriz, 'Harrobi ustiaketa' noranzkoa hartuz.


 **6. Burdinaren mendiko seinaleak (III).** Ingurua seinalez eta bidegurutzez betea dago. Oamendi aldera egiteko, 'Txondorra. Baso bizia' noranzkoa hartu behar da.


 **7. Larrantxo gaina.** Basotik atera, Aralarko bistekin gozatu, eta aldapa piko bat igota, Larrantxo gain zabalera iristen da (602 m.). PR-Gi 3008 arrastoei segi behar zaie. Ehiza postu bat eta baserri erori bat ikusiko ditugu.


 **8. Oaerrekako zuloa.** Pinudian dagoen pistan behera eginez, 150 metroko jaitsiko ditugu, PR arrastoak dituen langa batera iritsi arte. Oaerrekako erreka ziztorra gurutzatuko dugu.


 **9. Urruzti baserriak.** Baserri bide baten gora eginda, Urruzti baserrietara iritsiko gara, Oaurreizti izeneko parajea. Goraka jarraituz, Oamendi 2,7 kilometrora dagoen seinalera iritsiko gara. Aizkorri-Aratz parke naturalaren seinalea ere badago.


 **10. Bidegurutzea Ameztián.** Gorakako bidean, bidegurutze batekin egingo du topo Ameztian baten barrenean. Ezkerretara gora egin beharra dago.


 **11. Ganadu aska.** Gorantz eginez, ganadu aska batekin egingo dugu topo. Ganadu askan gora egin beharra dago, eskubira doan bidea utziz.

 **12. Oamendiko lepoa.** Tontorra gertuagoa dago. Gorantz goazela Oamendiko mendi aterpea ikusiko dugu, hegian.

 **13. Oamendi (886 m.).** Aurrez Harripileta gaina (888 m.) ezagutu ondoren, Oamendira iritsi gara. Begiratoki aparta da. Aizkorriko gailurreria parean, eskubira Debagoieneko eta Bizkaiko mendia, eta ezkerrean Goierriko herriak, Aralar atzean dela.

 **14. Egur-hesia.** Oamendiren barrenean ikusten den hesia erreferentzia hartuta, eta arrasto zuri-horiak gidari direla, beheranzko bideari ekingo diogu, bidegurutze dezente dituzten baso pistetan. Burdinaren mendiko beste hegian gabiltza.

 **15. Aizpea auzoa.** Baso misto aberatseko eremuan gabiltzala, garbi gune batean, Aizpea baserri-auzoa ikusiko dugu parez pare, Aizpuru mendiaren barrenean.

 **16. Aizpeako kiskaltze labeak.** Jaitsiera amaituta, ordeka gune bat igaroz, Aizpeako kiskaltze labeetara iritsiko gara.

P = **1. Amaiera puntua.** Berriz ere Aizpitako adieraztegiako aparkalekuan gara bueltan, ibilbideari bukaera emanez.



AIZPEAKO MEATEGIA

Aizpeako meategien lehenengo erreferentziak XII. mendera garamatza, eta ordutik hasita, 1951. urtean gaur egun ikus daitezkeen kiskaltze labeak itxi ziren arte, burdin meategiak oso lotuta egon dira Zeraingo herriarekin. Burdinaren mendiko 150 hektarea zabaletan, burdina ustiatu da. Ustiaketa horri esker, inguruan paisaia berezia garatu da; burdinaren lurekoa. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Monumentu Multzo izendapena du eta Aizkorri Aratz Parke naturalaren barruan dago kokatua. Burdingintzaren prozesua ezagutzeko Aizpitako adieraztegia dago labeetatik gertu.



LARRANTXOKO AMEZTIA

Zeraingo ehiztarien uso-postuen eremu izateaz gain, Larrantxo gaina (602 m.) nonahi hazten diren amezti (Quercus pyrenaica) eta hostazurien (Sorbus aria) ugartasunarengatik da ezaguna. Ameztian egoera hobetzeko proiektu bat ere badute. Oamendiren oinean dago, Barbari baserri-azotik gertu.



OAMENDI

Zeraingo mendirik garaiena da, begiratoki aparta (886 m.), Legazpirekin eta Zegamarekin muga-muga. Mendi horren inguruan konturatuko gara leku askotan lur-azala harrotuta dagoela, eta harri solte asko dagoela. Itxura denez, leku batean baino gehiagotan erazten zuten harria. Labratzeko gozoa eta bistarako dotorea da hango harria, aparteko grazia duena, bere olatu eta koloreekin. Oñatiko unibertsitatea, Legazpiko udaletxea, eta Ezkio, Itsaso, Zerain eta Legazpiko eliza nagusiak Oamendiko harriekin eraiki zituzten, besteak beste.